Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko martxoaren 25a, astelehena — 57 — Lunes, a 25 de marzo de 2019

## GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK — 1 — DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*161/2019 Foru Agindua, martxoaren 13koa, «Berotegi efektuko gas fluordunekin egindako eragiketen aitorpen laburbiltzailea» izena duen 586 eredua aldatzen duena.*

Apirilaren 22ko 173/2015 Foru Aginduaren bidez, «Berotegi efektuko gas fluordunekin egindako eragiketen aitorpen laburbiltzailea» izena duen 586 eredua onartu zen, baita hura aurkezteko era eta prozedura ezarri ere.

Foru agindu hori emateko, aintzat hartu zen apirilaren 21eko 7/2014 Legeak, zeinak aldaketak sartzen baititu Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legean, estatuarekin itundua utzi zuela berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga.

Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak 34. artikuluan xedatzen du berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga tributu itundu bat dela eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau substantibo eta formal berberak erabiliko direla hura arautzeko.

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, hala ere, aitorpen eta ordainketa ereduak onartu ahal izango dituzte. Eredu horietan gutxienez lurralde erkideko datu berberak agertuko dira, eta likidazio aldi bakoitzerako ordainketa epeak ezarriko dira, baina azken horiek funtsean ezin dira izan Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak.

Zerga horren erregulazioa bi xedapen hauetan jasotzen da: urriaren 29ko 16/2013 Legean, ingurumen fiskalitatearen arloan zenbait neurri ezarri eta beste tributu eta finantza neurri batzuk onartzekoan, eta zerga horren Erregelamenduan, abenduaren 27ko 1042/2013 Errege Dekretuaren bidez onartutakoan.

Ekonomia Ituneko lehen xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera, foru lurraldeek araudi propiorik onartzen ez duten artean, lurralde erkidean indarrean dauden arauak aplikatuko dira. Arau horiek, dena dela, zuzenbide osagarri izango dira beti.

Berotegi Efektuko Gasen gaineko Zergaren Erregelamenduak 5. artikuluan dioenez, fabrikatzaileek, inportatzaileek, batasun barruko eskuratzaileek eta hondakin kudeatzaileek gas fluordunen erosketak, salmentak edo entregak egiten badituzte zergatik salbuetsita edo zergari lotu gabe urriaren 29ko 16/2013 Legearen 5. artikuluko zazpigarren apartatuan eta seigarren apartatuko 2. zenbakiaren lehen paragrafoan jasotakoarekin bat, eragiketen aitorpen laburbiltzaile bat aurkeztu behar dute.

Abenduaren 29ko 1075/2017 Errege Dekretuak aldaketak sartu ditu 5. artikulu horretan, eta idazkera berriaren arabera, fabrikatzaileek, inportatzaileek, batasun barruko eskuratzaileek, birsailtzaileek edo hondakin kudeatzaileek berotegi efektuko gas fluordunak erosi, inportatu, batasun barruan eskuratu, saldu, entregatu edo autokontsumitzen badituzte aitortzen den urte naturalean, eragiketa horiek guztiak aitortu egin behar dira, zergari lotuta egon ez, eta salbuetsita egon edo ez.

### DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*Orden Foral 161/2019 de 13 de marzo, por la que se modifica el modelo 586 «Declaración recapitulativa de operaciones con gases fluorados de efecto invernadero».*

Por Orden Foral 173/2015, de 22 de abril, se aprobó el modelo 586 «Declaración recapitulativa de operaciones con gases fluorados de efecto invernadero», y se establecieron la forma y procedimiento para su presentación.

Dicha orden foral se dictó al amparo de la concertación del impuesto sobre los gases fluorados de efecto invernadero mediante la Ley 7/2014, de 21 de abril, por la que se modifica la Ley 12/2002, de 23 de mayo, por la que se aprueba el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Así, el artículo 34 del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, establece que el impuesto sobre los gases fluorados de efecto invernadero es un tributo concertado que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado.

No obstante, las Instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán aprobar los modelos de declaración e ingreso, que contendrán al menos los mismos datos que los de territorio común, y señalar plazos de ingreso para cada período de liquidación, que no diferirán sustancialmente de los establecidos por la Administración del Estado.

La regulación del mencionado impuesto viene recogida en la Ley 16/2013, de 29 de octubre, por la que se establecen determinadas medidas en materia de fiscalidad medioambiental y se adoptan otras medidas tributarias y financieras, así como en el Reglamento del Impuesto, aprobado por el Real Decreto 1042/2013, de 27 de diciembre.

Según dispone la disposición adicional primera del citado Concierto Económico, en ausencia de una regulación foral propia, son aplicables las normas vigentes en territorio común, las cuales, en todo caso, tendrán carácter de derecho supletorio.

El artículo 5 del Reglamento del Impuesto sobre Gases Fluorados de Efecto Invernadero establece que los fabricantes, importadores, adquirentes intracomunitarios, revendedores y gestores de residuos que realicen operaciones de compra, venta o entrega de gases fluorados que resulten exentas o no sujetas al impuesto de acuerdo con lo establecido en el artículo 5, apartado Siete, y primer párrafo del apartado Seis 2, respectivamente, de la Ley 16/2013, de 29 de octubre, deberán presentar una declaración recapitulativa de operaciones.

El mencionado artículo 5 ha sido modificado mediante el Real Decreto 1075/2017, de 29 de diciembre, de forma que tienen que declararse las operaciones de adquisición, importación, adquisición intracomunitaria, venta o entrega o autoconsumo de gases fluorados de efecto invernadero que, durante el año natural al que la declaración se refiera, efectúen fabricantes, importadores, adquirentes intracomunitarios, revendedores o gestores de residuos, estén sujetas, no sujetas o exentas.

EK\CV GAO-I-2019-01691

Foru agindu honen xedea da apirilaren 22ko 173/2015 Foru Agindua aldatzea «Berotegi efektuko gas fluordunekin egindako eragiketen aitorpen laburbiltzailea» aurkezteko erabiltzen den 586 ereduak erregelamenduak ekarritako aldaketa betetzea ahalbidetu dezan.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

*Artikulu bakarra. Aldatzea apirilaren 22ko 173/2015 Foru Agindua, «Berotegi efektuko gas fluordunekin egindako eragiketen aitorpen laburbiltzailea» izeneko 586 eredua onartu eta hura aurkezteko modua eta prozedura ezartzen dituena.*

Honela aldatzen da apirilaren 22ko 173/2015 Foru Agindua, «Berotegi efektuko gas fluordunekin egindako eragiketen aitorpen laburbiltzailea» izeneko 586 eredua onartu eta hura aurkezteko modua eta prozedura ezartzen dituena:

*Bat.* 2. artikulua honela geratzen da idatzita:

«2. artikulua. 586 eredua aurkeztera behartuak.

Honako hauek daude behartuta 586 eredua aurkeztera: gas fluordunak erosi, inportatu, batasun barruan eskuratu, saldu, entregatu edo autokontsumitzeko eragiketak egiten dituzten fabrikatzaileak, inportatzaileak, batasun barruko eskuratzaileak, birsaltzaileak eta hondakin kudeatzaileak, baldin eta eragiketa horiek zergatik salbuetsita, hari lotuak zein lotu gabe badaude urriaren 29ko 16/2013 Legeak, ingurumen fiskalitatearen arloan zenbait neurri ezarri eta beste tributu eta finantza neurri batzuk onartzen dituenak, 5. artikuluan xedatutakoarekin bat.»

*Bi.* 4. artikulua honela geratzen da idatzita:

«4. artikulua. 586 eredua aurkezteko modua.

1. 586 eredua paperean zein Internet bidez aurkeztu daiteke, azken kasu horretan bitarteko elektronikoak erabilita. Horretarako, interesdunak «Zergabidea» plataformako laguntza programa erabili behar du, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa kokatuta dagoen https://egoitza.gipuzkoa.eus helbidean sartuta.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa xedatuta ere, urtarrilaren 4ko 1/2016 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duenak, 1. artikuluko 1. apartatuan aipatzen dituen zergapekoek nahitaez internet bidez aurkeztu behar dute 586 eredua, foru agindu horretan ezarritakoari jarraituz.

3. Eredua internet bidez aurkezteko, bitarteko elektronikoak erabilita, urtarrilaren 4ko 172016 Foru Aginduan jasotako prozedurari jarraitu beharko zaio.

586 eredua prestatu eta aurkezteko erabil daitekeen laguntza programa eta aitorpenaren fitxategia bidaltzeko funtzionalitatea, «Zergabidea» plataforman daude eskuragarri.

4. 586 eredua paperean aurkeztu nahi bada, beharrezkoa izango da ereduari dagokion inprimakia aurkeztea «Zergabidea» plataforman behar bezala bete eta gero. Inprimakiak bi ale izango ditu: Administrazioarena eta interesdunarena.

Paperezko aurkezpena aukeratuz gero, bi tokitan aurkeztu ahal izango da eredua: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan (Errotaburu pasealekua 2 - 20108 Donostia) edo, bestela, Ogasun eta Finantza Departamentuko herritarren arretarako bulegoetan.»

*Hiru.* I. eranskinaren ordez, foru agindu honetan ageri den eranskina erabiliko da.

La presente orden foral tiene por objeto modificar la Orden Foral 173/2015, de 22 de abril, a fin de configurar un nuevo modelo 586 «Declaración recapitulativa de operaciones con gases fluorados de efecto invernadero» que permita dar cumplimiento a la referida modificación reglamentaria.

En su virtud,

DISPONGO

*Artículo único. Modificación de la Orden Foral 173/2015, de 22 de abril, por la que se aprueba el modelo 586 «Declaración recapitulativa de operaciones con gases fluorados de efecto invernadero», y se establece la forma y procedimiento para su presentación.*

Se introducen las siguientes modificaciones en la Orden Foral 173/2015, de 22 de abril, por la que se aprueba el modelo 586 «Declaración recapitulativa de operaciones con gases fluorados de efecto invernadero», y se establece la forma y procedimiento para su presentación:

*Uno.* El artículo 2 quedan redactado en los siguientes términos:

«Artículo 2. Obligados a presentar el modelo 586.

Están obligados a la presentación del modelo 586 los fabricantes, importadores, adquirentes intracomunitarios, revendedores y gestores de residuos que realicen operaciones de adquisición, importación, adquisición intracomunitaria, venta o entrega o autoconsumo que resulten sujetas, exentas o no sujetas conforme a lo dispuesto en el artículo 5 de la Ley 16/2013, de 29 de octubre, por la que se establecen determinadas medidas en materia de fiscalidad medioambiental y se adoptan otras medidas tributarias y financieras.»

*Dos.* El artículo 4 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 4. Forma de presentación del modelo 586.

1. La presentación del modelo 586 podrá efectuarse en soporte papel o por medios electrónicos a través de Internet, para lo cual el interesado deberá acceder a la plataforma «Zergabidea» para la elaboración y presentación de declaraciones y escritos tributarios disponible en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, a la cual se accederá a través de la dirección electrónica https://egoitza.gipuzkoa.eus.

2. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, los obligados tributarios a los que se refiere el apartado 1 del artículo 1 de la Orden Foral 1/2016, de 4 de enero, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos, estarán obligados a la presentación por Internet del modelo 586, de conformidad con lo dispuesto en dicha orden foral.

3. La presentación por medios electrónicos a través de Internet se efectuará siguiendo el procedimiento previsto en la Orden Foral 1/2016, de 4 de enero.

El programa de ayuda para la elaboración y presentación del modelo 586 se encuentra disponible en la plataforma «Zergabidea», así como la funcionalidad para el envío del fichero correspondiente a la declaración que haya podido elaborarse.

4. La presentación en papel se efectuará mediante la presentación del impreso correspondiente al modelo 586, cumplimentado a través de la plataforma «Zergabidea», y constará de dos ejemplares; para la Administración y para el declarante.

La presentación en papel podrá efectuarse en el Servicio de Impuestos Indirectos del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa (Paseo de Errotaburu 2, 20018 San Sebastián) o en alguna de las oficinas de atención ciudadana del Departamento de Hacienda y Finanzas.»

*Tres.* Se sustituye el anexo I por el anexo de la presente orden foral.

EK\CV GAO-I-2019-01691

*Lau.* II. eranskina bertan behera geratzen da.

*Azken xedapena.*

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Donostia, 2019ko martxoaren 13a.—Javier Larrañaga Garmendia, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua. (1691)

*Cuatro.* Se suprime el anexo II.

*Disposición final.*

La presente orden foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 13 de marzo de 2019.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Jabier Larrañaga Garmendia. (1691)



EK\CV GAO-I-2019-01691

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas

*8400055862019*

# BEROTEGI EFEKTUKO GAS FLUORDUNEN GAINEKO ZERGA
# IMPUESTO SOBRE LOS GASES FLUORADOS DE EFECTO INVERNADERO

## Aitorpen laburtzailea
## Declaración recapitulativa

**586**

Organismo kodea / Código de Organismo: **75 03 6**

**Administrazioaren alea** / Ejemplar para la Administración

| | | |
|---|---|---|
| **(1) Identifikazioa** Identificación | **IFZ** / NIF | **Deiturak eta izena, edo sozietate izena** / Apellidos y nombre, o razón social |
| | **Helbidea, udalerria eta probintzia** Domicilio, localidad y provincia | |

| | | |
|---|---|---|
| **(2) Jardueraren kodea** Código de actividad | **GFJ** CAF | |
| **(3) Aitorpenaren identifikazioa** Identificación de la declaración | **Ekitaldia** Ejercicio | |

**Orria** Hoja n.º ☐ **Kopurua** de ☐

| **(4) Eskurapena, batasun barruko eskurapena edo inportazioa** Adquisición, adquisición intracomunitaria o importación | **Aitortzailearen identifikazioa** Identificación declarante | **Hornitzailearen identifikazioa** Identificación proveedor | | | | **Produktuaren identifikazioa** Identificación Producto | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **GFJ** CAF | **Eragiketa mota** Tipo operación | **Deiturak eta izena, edo sozietate izena** Apellidos y nombre, o razón social | **IFZ, IFZ (BEZ), ADB** NIF, NIF IVA, DUA | **GFJ** CAF | **Epigrafea** Epígrafe | **Kudeaketa kodea** Código de gestión | **Kantitate lotua, salbuetsi gabea** Cantidad sujeta, no exenta | **Kantitate lotua, salbuetsia** Cantidad sujeta exenta | **Lotu gabeko kantitatea** Cantidad no sujeta |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |

| **(5) Salmenta, entrega edo autokontsumoa** Venta, entrega o autoconsumo | **Aitortzailearen identifikazioa** Identificación declarante | **Hartzailearen identifikazioa** Identificación destinatario | | | | **Produktuaren identifikazioa** Identificación Producto | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **GFJ** CAF | **Eragiketa mota** Tipo operación | **Deiturak eta izena, edo sozietate izena** Apellidos y nombre, o razón social | **IFZ, IFZ (BEZ), ADB** NIF, NIF IVA, DUA | **GFJ** CAF | **Epigrafea** Epígrafe | **Kudeaketa kodea** Código de gestión | **Kantitate lotua, salbuetsi gabea** Cantidad sujeta, no exenta | **Kantitate lotua, salbuetsia** Cantidad sujeta exenta | **Lotu gabeko kantitatea** Cantidad no sujeta |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |

**Data** / Fecha ..................................................................................................... **Subjektu pasiboaren sinadura** / Firma del sujeto pasivo

EK\CV GAO-I-2019-01691

Interesatuaren alea / Ejemplar para el interesado

**Gipuzkoako Foru Aldundia**
Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas

*8400055862019*

# BEROTEGI EFEKTUKO GAS FLUORDUNEN GAINEKO ZERGA
## IMPUESTO SOBRE LOS GASES FLUORADOS DE EFECTO INVERNADERO
### Aitorpen laburtzailea
### Declaración recapitulativa

**586**

Organismo kodea / Código de Organismo: **75 03 6**

| | | |
|---|---|---|
| **(1) Identifikazioa** Identificación | **IFZ** / NIF | **Deiturak eta izena, edo sozietate izena** / Apellidos y nombre, o razón social |
| | **Helbidea, udalerria eta probintzia** Domicilio, localidad y provincia | |

| | | |
|---|---|---|
| **(2) Jarduerararen kodea** Código de actividad | **GFJ** CAF | |
| **(3) Aitorpenaren identifikazioa** Identificación de la declaración | **Ekitaldia** Ejercicio | |

**Orria** Hoja n.º ☐ **Kopurua** de ☐

**(4) Eskurapena, batasun barruko eskurapena edo inportazioa** Adquisición, adquisición intracomunitaria o importación

| Aitortzailearen identifikazioa Identificación declarante | Hornitzailearen identifikazioa Identificación proveedor | | | | Produktuaren identifikazioa Identificación Producto | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **GFJ** CAF | **Eragiketa mota** Tipo operación | **Deiturak eta izena, edo sozietate izena** Apellidos y nombre, o razón social | **IFZ, IFZ (BEZ), ADB** NIF, NIF IVA, DUA | **GFJ** CAF | **Epigrafea** Epígrafe | **Kudeaketa kodea** Código de gestión | **Kantitate lotua, salbuetsi gabea** Cantidad sujeta, no exenta | **Kantitate lotua, salbuetsia** Cantidad sujeta exenta | **Lotu gabeko kantitatea** Cantidad no sujeta |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |

**(5) Salmenta, entrega edo autokontsumoa** Venta, entrega o autoconsumo

| Aitortzailearen identifikazioa Identificación declarante | Hartzailearen identifikazioa Identificación destinatario | | | | Produktuaren identifikazioa Identificación Producto | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **GFJ** CAF | **Eragiketa mota** Tipo operación | **Deiturak eta izena, edo sozietate izena** Apellidos y nombre, o razón social | **IFZ, IFZ (BEZ), ADB** NIF, NIF IVA, DUA | **GFJ** CAF | **Epigrafea** Epígrafe | **Kudeaketa kodea** Código de gestión | **Kantitate lotua, salbuetsi gabea** Cantidad sujeta, no exenta | **Kantitate lotua, salbuetsia** Cantidad sujeta exenta | **Lotu gabeko kantitatea** Cantidad no sujeta |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |

**Data** / Fecha ........................................................................................................ **Subjektu pasiboaren sinadura** / Firma del sujeto pasivo

EK\CV GAO-I-2019-01691

## Inprimakia betetzeko jarraibideak

**Aitortzailearen identifikazioa (1)**

Idatzi aitortzen duen zergapekoaren izen-abizenak edo sozietate izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ).

Idatzi aitortzen duen zergapekoak jarduera egiteko erabiltzen duen establezimenduaren helbidea edo, kasua bada, zerga helbideari dagokiona.

**Aitortzailearen jarduera kodea (2)**

Idatzi aitortzen duen zergapekoaren jarduera identifikatzen duen GFJ kodea (gas fluordunen jarduera kodea). Aitortzailea jarduera kode baten baino gehiagoren titularra denean, eremu hau ez da beteko.

**Aitorpenaren identifikazioa (3)**

**Ekitaldia:** aitortzen den urtearen lau zifrak jarri behar dira.

**Eskurapena, batasun barruko eskurapena edo inportazioa (4)**

**Aitortzailearen identifikazioa:** zutabe hau beteko da, soil-soilik, baldin eta aitortzailea GFJ kode baten baino gehiagoren titularra bada, kode bakoitzari dagozkion eragiketak bereizita aitortu behar direlako. Jarduera gakoak apirilaren 29ko HAP/685/2014 Aginduak, «Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga. Autolikidazioa» izeneko 587 eredua onartzen duenak, III. eranskinean jasotakoak dira.

**Hornitzailearen identifikazioa:** Datu hauek adierazi behar dira, agindu honen II. eranskinean xedatutakoaren arabera:

**Eragiketa mota:** 1, 2 edo 3 jarri behar da, aitortzen den eragiketa zer motatakoa den: estatu barruko eskurapena, batasun barruko eskurapena, edo inportazioa, foru agindu honen II. eranskinean jasotakoaren arabera.

**Izen-abizenak edo sozietate izena:** Hornitzailearen izen-abizenak edo sozietate izena jarri behar dira.
**IFZ:** Hornitzailearen IFZ jarri behar da.

**IFZ (BEZ):** Hornitzailearen IFZrik ez badago, BEZaren ondorioetarako dagokion IFZ jarriko da.

**ADB:** hornitzaileak ez badu ez IFZrik ez BEZeko IFZrik, inportazioari dagokion ADBa adierazi behar da.

**GFJ:** Baldin badu, hornitzailearen GFJ kodea adierazi behar da. Jarduera gakoak apirilaren 29ko HAP/685/2014 Aginduak, «Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga. Autolikidazioa» izeneko 587 eredua onartzen duenak, III. eranskinean jasotakoak dira.

**Produktuaren identifikazioa:** Datu hauek adierazi behar dira, agindu honen II. eranskinean xedatutakoaren arabera:

**Epigrafea:** hemen jarri behar da zer epigrafe dagokien aitortzen diren gasei, urriaren 29ko 16/2013 Legeak 5.Hamaika artikuluan xedatutakoaren arabera.

**Kudeaketa kodea:** adierazi behar da zer kudeaketa kode dagokien aitortzen diren gasei, apirilaren 29ko HAP/685/2014 Aginduak, «Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga.

## Instrucciones para cumplimentar el modelo

**Identificación del declarante (1)**

Deberá consignarse el nombre, apellidos o razón social, y NIF del obligado al que se refiere la declaración

Deberá consignarse la dirección del establecimiento donde ejerza su actividad el obligado al que se refiere la declaración o, en su caso la de su domicilio fiscal.

**Código de actividad del declarante (2)**

Deberá consignarse el código CAF que identifica la actividad del obligado tributario al que se refiere la declaración. Cuando el declarante sea titular de más de un código de actividad este campo no se cumplimentará.

**Identificación de la declaración (3).**

**Ejercicio:** Deberá consignarse las cuatro cifras del año al que se refiere la declaración.

**Adquisición, adquisición intracomunitaria o importación (4)**

**Identificación del declarante:** Esta columna deberá de cumplimentarse cuando el declarante sea titular de varios CAF, ya que deben declararse de forma separada las operaciones correspondientes a cada uno de ellos. Las claves de actividad son las previstas en el anexo III de la Orden HAP/685/2014, de 29 de abril, por el que se aprueba el modelo 587 "Impuesto sobre gases fluorados de efecto invernadero. Autoliquidación".

**Identificación del proveedor:** Deberá consignarse los siguientes datos, de acuerdo con lo dispuesto en el anexo II de esta Orden.

**Tipo de operación:** Debe consignarse 1, 2 o 3 según que el tipo de operación objeto de declaración sea, respectivamente, adquisición en el ámbito interno, adquisición intracomunitaria o importación, de acuerdo con lo dispuesto en el Anexo II de esta Orden.

**Nombre y apellidos o Razón Social:** Deberá consignarse el nombre y apellidos o razón social correspondiente al proveedor.

**NIF:** Debe consignarse el NIF correspondiente al proveedor.

**NIF IVA:** En defecto del NIF correspondiente al proveedor, debe consignarse el NIF IVA correspondiente al proveedor.

**DUA:** en defecto del NIF y del NIF IVA correspondiente al proveedor, debe consignarse el DUA correspondiente a la importación.

**CAF:** Debe consignarse, en caso de que lo tuviere, el CAF correspondiente al proveedor. Las claves de actividad son las previstas en el anexo III de la Orden HAP/685/2014, de 29 de abril, por la que se aprueba el modelo 587 "Impuesto sobre gases fluorados de efecto invernadero, autoliquidación".

**Identificación del producto:** Debe consignarse los siguientes datos, de acuerdo con el anexo II de esta Orden.

**Epígrafe:** Debe consignarse el epígrafe correspondiente a los gases objeto de la declaración, conforme a lo dispuesto en el artículo 5 ONCE de la Ley 16/2013, de 29 de octubre.

**Código de gestión:** Debe consignarse el código de gestión correspondiente a los gases objeto de la declaración conforme a lo dispuesto en el anexo II de la Orden HAP/685/2014, de 29 de

Autolikidazioa» izeneko 587 eredua onartzen duenak, II. eranskinean jasotakoaren arabera.

**Kantitate lotua eta salbuetsi gabea:** hemen jaso behar da aitortzen diren gas fluordunen zer kantitate dagoen zergari lotuta eta ez-salbuetsita, agindu honen II. eranskinean jasotakoaren arabera.

**Kantitate lotua eta salbuetsia:** hemen jarri behar da aitortzen diren gas fluordunen zer kantitate dagoen zergatik salbuetsita, agindu honen II. eranskinean jasotakoaren arabera.

**Lotu gabeko kantitatea:** hemen jaso behar da aitortzen diren gas fluordunen zer kantitate ez dagoen zergari lotuta, agindu honen II. eranskinean jasotakoaren arabera.

**Lehen salmenta, entrega edo autokontsumoa (5)**

**Aitortzailearen identifikazioa:** zutabe hau beteko da, soil-soilik, baldin eta aitortzailea GFJ kode baten baino gehiagoren titularra bada, kode bakoitzari dagozkion eragiketak bereizita aitortu behar direlako. Jarduera gakoak apirilaren 29ko HAP/685/2014 Aginduak, «Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga. Autolikidazioa» izeneko 587 eredua onartzen duenak, III. eranskinean jasotakoak dira.

**Hartzailearen identifikazioa:** Datu hauek adierazi behar dira, agindu honen II. eranskinean xedatutakoaren arabera:

**Eragiketa mota:** 1, 2, 3 edo 4, jarriko da, aitortzen den eragiketa zer motatakoa den: estatu barruko salmenta, batasun barruko salmenta, esportazioa edo autokontsumoa.

**Izen-abizenak edo sozietate izena:** Hartzailearen izen-abizenak edo sozietate izena jarri behar dira.

**IFZ:** Hartzailearen IFZ jarri behar da.

**IFZ (BEZ):** Hartzaileak ez badu IFZrik, BEZaren ondorioetarako dagokion IFZ jarriko da.

**ADB:** hornitzaileak ez badu ez IFZrik ez BEZeko IFZrik, esportazioari dagokion ADBa adierazi beharko da.

**GFJ:** Baldin badu, hornitzailearen GFJ kodea adierazi behar da. Jarduera gakoak apirilaren 29ko HAP/685/2014 Aginduak, «Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga. Autolikidazioa» izeneko 587 eredua onartzen duenak, III. eranskinean jasotakoak dira.

**Produktuaren identifikazioa:** Datu hauek adierazi behar dira, agindu honen II. eranskinean xedatutakoaren arabera:

**Epigrafea:** hemen jarri behar da zer epigrafe dagokien aitortzen diren gasei, urriaren 29ko 16/2013 Legeak 5.Hamaika artikuluan xedatutakoaren arabera.

**Kudeaketa kodea:** adierazi behar da zer kudeaketa kode dagokien aitortzen diren gasei, apirilaren 29ko HAP/685/2014 Aginduak, «Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga. Autolikidazioa» izeneko 587 eredua onartzen duenak, II. eranskinean jasotakoaren arabera.

**Kantitate lotua eta salbuetsi gabea:** hemen jaso behar da aitortzen diren gas fluordunen zer kantitate dagoen zergari lotuta eta ez-salbuetsita, agindu honen II. eranskinean jasotakoaren arabera.

**Kantitate lotua eta salbuetsia:** hemen jarri behar da aitortzen diren gas fluordunen zer kantitate dagoen zergatik salbuetsita, agindu honen II. eranskinean jasotakoaren arabera.

**Lotu gabeko kantitatea:** hemen jaso behar da aitortzen diren gas fluordunen zer kantitate ez dagoen zergari lotuta, agindu honen II. eranskinean jasotakoaren arabera.

abril, por el que se aprueba el "Impuesto sobre gases fluorados de efecto invernadero. Autoliquidación".

**Cantidad sujeta y no exenta:** Debe consignarse, de acuerdo con lo dispuesto en el anexo II de esta Orden, la cantidad sujeta y no exenta de gases fluorados objeto de declaración.

**Cantidad sujeta y exenta:** Deberá consignarse, de acuerdo con lo dispuesto en el anexo II de esta Orden, la cantidad exenta de gases fluorados objeto de declaración

**Cantidad no sujeta:** Deberá consignarse, de acuerdo con lo dispuesto en el anexo II de esta Orden, la cantidad no sujeta de gases fluorados objeto de declaración.

**Primera venta, entrega, entrega o autoconsumo (5)**

**Identificación del declarante:** Esta columna deberá de cumplimentarse cuando el declarante sea titular de varios CAF, ya que deben declararse de forma separada las operaciones correspondientes a cada uno de ellos. Las claves de actividad son las previstas en el anexo III de la Orden HAP/685/2014, de 29 de abril, por el que se aprueba el modelo 587 "Impuesto sobre gases fluorados de efecto invernadero. Autoliquidación".

**Identificación del destinatario:** Deberá consignarse los siguientes datos, de acuerdo con lo dispuesto en el anexo II de esta Orden.

**Tipo de operación:** Debe consignarse 1, 2, 3 o 4, según que el tipo de operación objeto de declaración sea, respectivamente, venta en el ámbito interno, entrega intracomunitaria, exportación o autoconsumo.

**Nombre y apellidos o Razón Social:** Deberá consignarse el nombre y apellidos o razón social correspondiente al destinatario.

**NIF:** Debe consignarse el NIF correspondiente al destinatario.

**NIF IVA:** En defecto del NIF correspondiente al destinatario, debe consignarse el NIF IVA correspondiente al destinatario.

**DUA:** en defecto del NIF y del NIF IVA correspondiente al destinatario, debe consignarse el DUA correspondiente a la exportación.

**CAF:** Debe consignarse, en caso de que lo tuviere, el CAF correspondiente al proveedor. Las claves de actividad son las previstas en el anexo III de la Orden HAP/685/2014, de 29 de abril, por la que se aprueba el modelo 587 "Impuesto sobre gases fluorados de efecto invernadero, autoliquidación".

**Identificación del producto:** Debe consignarse los siguientes datos, de acuerdo con el anexo II de esta Orden.

**Epígrafe:** Debe consignarse el epígrafe correspondiente a los gases objeto de la declaración, conforme a lo dispuesto en el artículo 5 ONCE de la Ley 16/2013, de 29 de octubre.

**Código de gestión:** Debe consignarse el código de gestión correspondiente a los gases objeto de la declaración conforme a lo dispuesto en el anexo II de la Orden HAP/685/2014, de 29 de abril, por el que se aprueba el "Impuesto sobre gases fluorados de efecto invernadero. Autoliquidación".

**Cantidad sujeta y no exenta:** Debe consignarse, de acuerdo con lo dispuesto en el anexo II de esta Orden, la cantidad sujeta y no exenta de gases fluorados objeto de declaración.

**Cantidad sujeta y exenta:** Deberá consignarse, de acuerdo con lo dispuesto en el anexo II de esta Orden, la cantidad exenta de gases fluorados objeto de declaración

**Cantidad no sujeta:** Deberá consignarse, de acuerdo con lo dispuesto en el anexo II de esta Orden, la cantidad no sujeta de gases fluorados objeto de declaración.

EK\CV GAO-I-2019-01691